

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILA

Hezkuntza

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko uztailaren 29an hartutako erabakiaren laburpena; bertan onartzen baitira ikasteko zailtasunak dituzten neska-mutikoei laguntzeko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuko laguntzen deialdi publikoa eta deialdia arautzen duten oinarri espezifikoak. 2019-2020 ikasturtea

BDNS(Identif.): 468795

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalen kontsulta daiteke.

Lehena. Onuradunak

Gasteizko ikastetxeak izango dira laguntzen hartzaileak, zehazki, lehen hezkuntzan irakas-kuntza gauzatzen dutenak. Hala, ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei laguntza psikopedago-gikoa emateko erabiliko dute, betiere Udalaren Hezkuntzak Zerbitzuak (Hezkuntza eta Kultura Saila) onartzen badu, ikastetxeek aurkezten dituzten eskaerekin eta txostenekin bat etorritz.

Bigarrena. Helburua

Diru laguntzen deialdi honen xedea hau da: 2019-2020 ikasturtean Gasteizko ikastetxeei laguntza ekonomikoa ematea. Lehen hezkuntzan matrikulatuta dauden, eta ikasteko zailtasunak dituzten neska-mutikoei laguntza psikopedagogikoko hori eskuratzeko aukera izan dezaten.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko uztailaren 29an onartu zituen, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

161.171,00 eurokoa da deialdiaren zuzkidura.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea oinarri hauen deialdiri dagokion testu-zatia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean irekiko da, eta 2019ko irailaren 27ra arte egongo da irekita (egun hori ere barne). Eskabideak epez kanpo aurkeztea diru laguntzak emateko prozeduratik kanporatzeko arrazoi izango da

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 29a

Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkaria
JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLÉS